

hondo-hondotik

Joxe Manuel Odriozola

(Euskara irakaslea)

Ingelesaren sarrera goiztiarra eskolan

Nafarroan sindikatu batzuk kezkatu omen dabilta gai honetan. Dirudenez, Hezkuntza Sailaren aldetik *euskararen kontrako maniobratzat* hartua izan omen litekeen sarbide goiztiarra planteatu da hezkuntzaren lehen urratsetan. Ni ez naiz oso aditua gai honetan, baina beti izan dut susmo saihestezin bat auzi honen inguruan. Eta susmo horri darizkion ohar kritiko moduan isuri nahi ditut ondorengo iritziok.

Lehen uste okerra. Hizkuntza guztiek —oraingoan hiru: espainiera, euskara eta ingelesa— izan dezakete beren lekua gizarte-esparru honetan eta hartan eta bestean. Maila pertsonalean beste horrenbeste: bat edo bi edo hiru jakiteak eta erabiltzeak ez du inolako ondorioz ez hiztunarengan ez hizkuntzen estatusetan. Hizkuntzek ez diote elkarri enbarazurik egiten. Gezurra, eta galanta gainera: bai maila sozialean eta bai maila pertsonalean hizkuntzen ezaguera eta erabilera elkarrekiko harremanetan dauden gauzak diren fenomeno sozialak direnez, kengarriak edo osagarriak izan daitezke. Hau da: hizkuntzen mundua izaera soziala duen fenomeno den unetik beretik, hizkuntz komunitateen, hiztunen eta hizkuntzen arteko osaga-

rritasun/aurkaritzak harreman horien lege bihurtzen dira. Kontraizan horien arabera antolatzen da hizkuntza bakoitzaren lekua eta egitekoa giza komunikazioen sarean.

Bigarren uste okerra. Osagarritasuna nagusitzen zaio kengarritasunari. Elebitasuna nahiz hirueletasuna osagarriak dira, ez kengarriak. Haurtzaroan edo gaztaroan bigarren edo hirugarren hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeak ez dio inori kalte egiten: ez hiztunari, ez hizkuntza komunitateari eta ez

hizkuntzari berari. Alegia, bost axola dio hizkuntz ikasketa eta erabilera hauen egoera soziolinguistikoa eta hizkuntzen *status quo*-a zertan den jakiteak. Kontua zera da, nonbait: hizkuntzak hizkuntz komunitateak bezalatsu berez direla adiskide eta lagun, osagarri eta oparo-bide, euren arteko estatus-harremanetan ondorio makurrik gabeak.

Gezur hutsa: horietako hizkuntza bat egoera minorizatuan egotea aski eta gehiegi izango da hizkuntzen aldeko apologia merke hori interes jakin batzuen mirabe dela ikusteko. Interes horiek, orde, ez dute nahi-taez UPNkoak izan behar; apologia honen aldeko mezuak eta jarrerak euskaltzaleen munduan bertan dauz-

kagu inora joan gabe. Koitaduak, halakoak!

Hirugarren uste okerra. Gure ustez haurtzaroko edo gaztaroko elebitasuna edo eleaniztasuna osagarria izango bada, sozializazio linguistiko hori eredu ideal baten gauzapean ideal bat besterik ez da. Beraz, egoera soziolinguistiko ideal bat eskatzen du esperientzia horrek. Alegia, bi hizkuntz komunitate edo gehiagoren arteko estatus-harremanek orekatuak izan behar dute, hiztunaren elebitasuna

gizartearen elebitasunak determinatzen baitu goitik beheraino. Eta egoera hori sekula ez da halakoa. Horregatik, hizkuntzen ikasketa eta erabilera goiztiarraz liburutetan eta agertzen diren esperientzia-ereduak dira diogunaren lekuko argienak: salbuespenak, ez dira besterik. Beraz, hizkuntza minorizatua tarteko den egoera soziolinguistikoa kontuan hartu gabe, eredu psikologiko eta psikolinguistiko idealak planteatuz datorrenari ez sinestu. Gezurretan ari da, berak ez badaki ere. Hizkuntzen mundua idealizatu egiten du halakoak, asmorik onenaz gainera askotan, eta horrexegatik hain zuzen, teoria eta proposamen hauek euskal mundutik datozenean are arriskutsuagoak izan ohi dira. UPNren hizkuntza politika

ez dago ikertu beharrik, begien bistan baitago hori.

Bukatzeko: hizkuntz komunitateen, hiztunen eta hizkuntzen arteko joan-etorriak osotasunean ulertu nahi baditugu, ikuspegi dialektikoa behar dugu, garai bateko hizkera erabiltzea zilegi baldin bazait. Eta ikuspegi horretan faktore nagusiak hartu behar ditugu aintzat eta gidaritzat, hots, hizkuntzen estatusak —egoera soziala eta corpus-garapena, alegia—, eta ez, jakina, esku artean darabilgun auzirako

hutsaren hurrengoak diren ikaslearen ez dakit zein gaitasun-mota eta erraztasun-kontuak.

Hizkuntza baten egoera *normaldu* nahi bada, oinarritzko baldintzapen soziolinguistikoak ebaluatu behar dira, ez hiztunaren garuna. Eta, jakina,

ingelearen sarbide goiztiarra bera ere problematika zabal horren testuinguruan kokatu beharko da abstrakzioz egin gabe. Izan ere, ondo pentsatzen jarrita, euskararen normalkuntza aurreikusten ez duen pedagogiak, didaktikak eta metodologiak ba al dute sentidurik? Hizkuntza, irakastekotan, erabiltzeko irakatsi beharko baita. Bestela, zertan ari gara? Eta zer esanik ez hizkuntza hori jatorriz eta nortasunez bertakoa denean.

BALDINTZAK

Hiztunaren elebitasuna gizartearen elebitasunak determinatzen du eta egoera hori sekula ez da halakoa

EBALUATU

Hizkuntza baten egoera normaldu nahi bada oinarritzko baldintzapen soziolinguistikoak ebaluatu behar dira

Tontxu Campos

(Ekonomi sustapeneko Bizkaiko foru diputatua eta Eusko Alkartasuneko kidea)

Euskadiko ontziolen oraina eta geroa: garai onak omen datoz

Poz itzela hartu dut *Iñigo Tapias* itsasontzi berriaren ureratzek arrakasta handia izan duela jakitean. LNG motako itsasontzia da (gas likidotua garraiatzen dutenetarikoa) eta Izarrek egin du, La Naval lantegian. Euskadin inoiz egin den ontzi handiena da, gure ontziolak ondo baino hobeto dabilta seinale. Gertakari honek, nire ustez, agerian jarri du sasoi onean dagoela Euskal Herriko itsas industria, oro har, eta Bizkaiko ontziolak, bereziki.

Gogora dezagun orain dela bi urte kezka handia izan genuela Sestaoko ontziolaren etorkizunaz, eta gaur, berriz, hantxe bertan uretaratu dute gas likidotua garraiatuko duen ontzi berri

hau. Sestaoko ontziolak gaur egun aginduta dituen lanak ikusita, gainera, etorkizunari baikor begiratzeko moduan gaude. Enpresako zuzendaritzak aspaldi honetan ahaleginak egin ditu instalazioak eraberritzen, materialen fluxuak hobeto antolatzen eta bere ohiko ekoizkin motak ugaritzen, eta garbi dago bide egokia hartu duela.

Azpimarratu nahi nuke, beste alde batetik, La Navalen uretaratu den gas-ontzia bezalako emaitzek bultzada ema-

ten dietela ontziolen industria lagungarriei ere. Adibidez, Zornotzan lantegi bat zabaldu da gas tankeak isolatzeko gaiak fabrikatuko dituen. Horrelako lantegiak orain arte Asiako herrialdeetan baino ez dira egon eta hemen ez genuke horrelakorik izango Sestaon Izar ontziolak lortu dituen eskariak lortu ez balitu.

Horregatik guztiagatik, zorionak eman behar dizkiet zuzendaritzari eta ontziolako langileei, gogotik ahaleginu direlako euren lantegia indarberitzen (benetako

ETORKIZUN BAIKORRA

Sestaoko ontziolak, aginduta dituen lanak ikusita, etorkizun baikorra du

iraultza egin dute) eta kalitatearen aldeko konpromisoa hartu dutelako. Hain zuzen ere, horrexek ziurtatuko du La Naval ontziolak lehian jarraitu ahal izatea, Europa, Japonia eta Koreako beste ontziola batzuen parean, itsasontzien merkatuan.

Ontzi-jabeei ere esker ona adierazi nahi diet La Naval enpresan jarri duten konfiantzagatik, Fernández Tapiasi oraingoan eta Knutseni hurrengo batean (ontziola aspalditik ari da merkataritzako harremanetan azken horrekin), eta uste osoa dut aurrerantzeko kontratuetan ere Sestaoko ontziolara joko dutela, honako LNG ontziarekin egin duen lan ederra ikusita.